

AUTOEBALUAZIO PROZEDURAK: EBALUAZIO JARRAIA

ERIZAINZTA OTORRINOLARINGOLOGIKOA

Test-erako proba, ORL 1.gaia:

- 1) Zeintzuk dira erdiko belarria osatzen duten egiturak?
 - a. Belarriaren pabilioia eta 3 hezurtxoak
 - b. Tinpanoa eta 3 hezurtxoak
 - c. Eustakioa tronpa, apofisi mastoidea eta bestibulua
 - d. Tinpanoa, 3 hezurtxoak, Eustakio tronpa eta apofisi mastoidea
- 2) Zein da belarriko pabiloiaren funtzio nagusia?
 - a. Ezkoa ekoiztea
 - b. Erdiko belarria babestea
 - c. Entzumen uhinak harrapatzea
 - d. Denak gezurrak dira
- 3) Eustakio tronparen funtzio nagusia:
 - a. Erdiko belarria aireztatzea da
 - b. Mukiak ekoiztea da
 - c. Soinua bidaiatzea da
 - d. Denak egokiak dira
- 4) Aukeratu esaldi egokia:
 - a. Koklean kokatzen diren likidoak endolinfa eta perilinfak dira
 - b. Bestibulua sakulo eta utrikuluz osatuta dago
 - c. Barneko belarriaren funtzio nagusiak entzumena eta oreka mantentzea dira
 - d. Denak egokiak dira
- 5) Aukeratu definizio okerra:
 - a. Akufenoak existitzen ez diren soinuen pertzepzio okerrak dira
 - b. Otagia belarrian mina sentitzea da
 - c. Otorrea kanpoko entzumen hoditik odola ateratzea da
 - d. Gorreriak entzumen galera edo gutxipena da

Egia ala gezurra, ORL 1.gaia:

1. **Belarria 3 zatitan banantzen da: kanpokoa, erdikoa eta barnekoa.**
2. **Eustakio tronpa belarriaren atzean kokatzen da.**
3. **Soinua erdiko belarritik barnekora leiho obalaren bitartez transmititzen da.**
4. **Hezurtxoen funtzioa oreka mantentzea da.**
5. **Belarria sudurra eta meningeekin konektatuta dago.**

ERANTZUNAK (ORL, 1. gaia):

Testa:

- 1) D
- 2) C
- 3) A
- 4) D
- 5) C

Egia ala gezurra:

- 1) Egia
- 2) Egia
- 3) Egia
- 4) Gezurra
- 5) Egia